



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko AZAROAREN 27an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2012ko azaroaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Leire Otegi Elola

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Fakturak eta ordainketak.
4. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2012ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteari dagokion ekarpenak burutzea, hala bada.
5. Artxiboa eguneratzeko aurrekontuaren onespena, hala bada.
6. Beste batzuk.
7. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen den Alkatetza Ebazpena eman dela adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

gainean geratu direlarik:

30/2012 Alkatetza Ebazpena, urriaren 1ekoa, A.I.E. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, 9596-CWD ibilgailuari dagokion Trakzio mekanikodun zergaren itzulera onestea, ebazten duena.

BIGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- REPSOL	166,86€
- REPSOL	177,66€
- ARGITU ASESORES	168,43€
- EBA ERKIZIA BRION	634,29€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **1.147,24** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

HIRUGARREN PUNTUA
AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2012ko 3. ETA 4. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkeztutako idatzia, non Alkizako Udalak 2012 ekitaldirako 3. eta 4. hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutu dezan eskaera egiten duen, sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 15.000 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2012 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa dagoela aurreikustea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA.- 15.000,00 eurotako gastua onestea.

LAUGARREN PUNTUA

ARTXIBOA EGUNERATZEKO AURREKONTUAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udal artxiboa eguneratu egin behar dela, hau da, 2009,2010,2011 eta 2012urteari buruzko espedienteak artxibatu egin behar direla.

Ikusirik aipaturiko lanak egiteko, Consuelo Urteaga andreari aurrekontu bat eskatu zaiola, bere zenbatekoa 1.379,40 euro direlarik (BEZ barne).

Gaia azterturik, bertaratuak, Udalbatzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Consuelo Urteaga andreak, Alkizako Udal artxiboa eguneratzeko aurkeztutako aurrekontua onartzea, bertan adierazten diren lanak egin ditzala eskatuaz. Bere zenbatekoa 1.379,40 euro direlarik (BEZ barne).

BIGARRENGOA.-Erabaki honen berri Consuelo Urteaga andreari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuak aho batez.

5.1. ALKIZAKO UDALEKO LANGILEEN ABENDUKO APARTEKO LANSARIA EZ ORDAINTZEA ETA ZENBATEKO HORI ATXEKITU ETA EZ DISPONITZEA.

Idazkariak, 2012/12 Errege Lege dekretuan araututa dagoena betetzeko laburpena egin die mahaikideei, eta guztiak jakinaren gainean geratu ondoren, aho batez , ondorengoa ERABAKI DUTE :

LEHENA: Abenduari dagozkion, aparteko ordainsariaren edo paga estra, eta lanpostu osagarria edo baliokideak diren ordainsari gehigarriak ez ordaintzea.

BIGARRENA: Aurtengo ekitaldian, aipatutako ordainsariak ordaintzeko aurreikusitako kredituak ibilgetzera eta beste helburu batera ezin izango direla zuzendu erabakitzea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

SEIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ondorengo adierazpen instituzionala aurkezten da:

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Azaroaren 25a dela-eta, hau da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak “Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna” aitortutako eguna dela-eta, **ALKIZAKO udalak** indarkeria matxistaren aurkako gaitzespena agertu du. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai eta sexismo mota oro ere, arinenak eta normalizatuenak barne, esaterako: sexuaren araberako rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztapena; edota pertsonetikiko diskriminazioa euren sexu-aukeraren edo genero identitatearen ondorioz.

Belaunaldi gazteagoen artean emakume nahiz gizonen arteko desberdintasunak eta emakumeenganako indarkeria gailenduta daudelako mitoa baino harago, errealitateak erakusten digu gazteen artean dagoen indarkeria matxista, baita adinez txikikoen artekoa ere, benetan kezagarria dela.

Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu gabe, ez eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke modua aldatu gabe ere. Horregatik, tokiko gobernuok konpromiso aktiboa izan behar dugu udalerriko gazteekin lan egin eta indarkeria matxista prebenitzeko, ahalegina eginez eta beharrezkoak diren baliabideak eskainiz. Hori horrela, errespetuan, askatasunean, autonomian eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzen lagunduko diegu gazteei.

Prebentzioko prozesu honek erreferentziazko eredu berriak sortzea ahalbidetzen du, hain zuzen ere, mutilek eta gizonek pribilegiozko jarrerarik eduki ez dezaten nesken eta emakumeen aldean, izan ere, indarkeria matxistaren jatorria emakumeen menpekotasuna eta diskriminazioa betikotzen duen botere-harremanean dago. Beldur Barik programan Euskadiko udalek hartzen dute parte, eta helburua da sexismotik aldentzen diren neska-mutikoen jarrera positibo eta egunerokoak antzeman eta ikusaraztea, izan ere, jarrera horiek rol tradizionalekin hautsi eta gizarte berdintsuagoa eraikitzea dute xede.

Erakundeetatik eta, erakunde hurbilenetik, udaletik, indarkeria matxistaren kontrako ardura soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu, eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak berrikusi



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

beharko ditugu. Norberak erantzukizun horiek bere gain hartuz gero, aldaketarako konpromisoa lortuko da.

ALKIZAKO Udalak, aho batez, ondorengo ERABAKITZEN DU:

1. Beldur Barik programaren edukiekin bat dator, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.
2. Herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista gaitzesteko ere.
3. Gonbit egiten die herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.55 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.